



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailak 19**

**Vitoria-Gasteiz, 19 de febrero de 2019**

## Lehendakaritza

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA – 2019ko OTSAILAREN 22a**  
***Emakumeen eta Gizonen Soldata Berdintasunaren aldeko Europako Eguna***

Datorren otsailaren 22an, ostirala, ***Emakumeen eta Gizonen Soldata Berdintasunaren aldeko Europako Eguna*** ospatuko dela eta, Eusko Jaurlaritzak berretsi egin nahi du lan-ingurunean emakumeen eta gizonen benetako berdintasunarekin hartu duen konpromisoa eta soldata-desberdintasunaren arazoari erantzun integral bat emateko egindako apustua.

Soldata-arrakala gizonen eta emakumeen arteko egitura-desberdintasunari lotutako ordainsari-arazoaren adierazpena da. Arrakalak erreproduzitu eta iraunarazi egiten du emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna gure gizartean, eta faktore askoren ondorioa da. Faktore horien artean, honako hauek azpimarra daitezke: sexuaren araberako lan-segregazioa eta emakumeek egindako lanaren balorazio sozial eta ekonomiko txikiagoa; emakumeek eta gizonek lan-merkatuan duten posizio desberdina (jenero-harremanek eta estereotipoek baldintzatutak); eta erantzunkidetasunik eza zainketa-lanetan.

Soldata-desberdintasunaren ondorioen artean, honako hauek aipa daitezke: emakumeen autonomia ekonomiko txikiagoa, pobrezia-indize handiagoak eta horren zuzeneko eragina gizarte-segurantzarako kotizazioetan, eta, beraz, pentsioetan.

Administrazioen erantzukizuna da soldata-arrakala desagerrarazten laguntzea, jakinik arazo konplexua dela, hainbat dimentsiotatik ekin behar zaiola eta inplikaturako agente guztien parte-hartzearekin lortuko dela.

Eusko Jaurlaritzak soldata-arrakala murrizteko hartu duen konpromisoa XI. Legegintzaldirako Gobernu Programan, Estrategia 2030ean eta, bereziki, *Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko Estrategian eta Ekintza Plan Eragilean* islatu da. Estrategia eta ekintza-plan hori joan den azaroaren 27an onartu zuen Gobernu Kontseiluak, eta Euskadi 2030. urterako soldata-desberdintasunik txikieneko Europako bost herrialdeen artean kokatzea du helburu.

Eusko Jaurlaritza era koordinatuan ari da Plan hori lantzen. Izan ere, gure ustez, emakumeen eta gizonen soldata-berdintasunerantz aurrera egitea, bidezkoa izateaz gain, onuragarria da gizarte osoarentzat, hazkunde ekonomikoan, produktibitatearen gehikuntzan eta familia-bizitzaren, bizitza pertsonalaren eta lan-bizitzaren kontziliazioan laguntzen baitu.

Lehentasunezko helburua da, eta lan koordinatu bat egin behar da jardun-arlo guztien artean, Euskadin emakumeen eta gizonen arteko soldata-berdintasuna bermatzeko. Hori da gure helburua, eta hori da gure zeregina.

Horretarako, eta *Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko Estrategian eta Ekintza Plan Eragilean* hartutako konpromisoei jarraikiz, Eusko Jaurlaritza honako ekimen hauek lantzen ari da (erantsitako dokumentuan daude zehaztuta), eta 2019ko lehen hiruhileko honetan jarriko ditu abian:

1.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea aldatzeko Legearen Aurreproiektuan **soldata-arrakala murrizteko neurriak** txertatzea.

2.- **Ordainsari-berdintasuna ikuskatzeko plan espezifikoaren onarpena**, Ikuskatzaileak indarrean dauden legeen kontrakoak diren eta soldata-arrakala sortzen duten ekintzen aurka egiten duen lana sendotzeko.

3.- **Elkarrizketa Sozialerako Mahaian lantalde espezifiko bat abian jartzea**, lan-harremanen eremuan emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerantz aurrera egiteko.

4.- **“Kontratu publikoetan, dirulaguntza publikoetan, hitzarmenetan eta itun sozialetan jenero-ikuspegia txertatzeko gida” eguneratzea, eta kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak eta soldata-arrakalaren aurkako neurriak txertatzeko instrukzio espezifiko bat onartzea**; instrukzio horrek lan-baldintzei dagokienez emakumeen eta gizonen berdintasuna erraztuko duten eta emakumeen eta gizonen soldata-berdintasuna bultzatuko duten klausula sozialak jasoko ditu, besteak beste, eta Administrazio Orokorreko, Administrazio Instituzionaleko eta sektore publikoko gainerako entitateetako kontratazio-organoei zuzenduta egongo da.

5.- **1,2 milioi euro gehigarriren gaikuntza**, hainbat partidatan, soldata-arrakala murriztera bideratutako jardunak sendotzeko.

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ERANSKINA**

**2019ko OTSAILAREN 22a**

***Emakumeen eta Gizonen Soldata Berdintasunaren aldeko Europako Eguna***

Adierazpen honi eta *Soldata Arrakala Murrizteko Estrategian eta Ekintza Plan Eragilean* hartutako konpromisoer jarraikiz, Eusko Jaurlaritzak honako ekimen hauek jarriko ditu abian 2019ko lehen hiruhilekoan:

**1.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea aldatzeko Legearen Aurreproiektuan soldata-arrakala murrizteko neurriak txertatzea.**

Legearen Aurreproiektu horrek (*lantzen ari da gaur egun*) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean soldata-arrakala eragiten duten faktoreei aurre egiteko aurreikusitako neurriak indartuko ditu, batez ere hezkuntzari eta lanari buruzko kapituluetan jasotakoak. Adierazitako faktoreak, nolana ere, jarduera-tasetan eta enplegu-tasetan emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunei, segregazio horizontalari (enplegua), segregazio bertikalari (kristalezko sabaia), lan-prekaritateari eta etxeko lanetan eta zainketa-lanetan agertzen den erantzunkidetasunik ezari lotuta daude.

**Hezkuntzaren eremuan**, baterako hezkuntzaren helburuetako bat, hezkuntza-etapen ezagutza-arlo eta diziplina guztietan txertatu beharrekoa, ikasleak aukera akademikoak jeneroan oinarritutako baldintzarik gabe egiteko trebatzea eta horretarako dauden oztopoak kentzea izango da, emakumeek industrian, zientzian eta teknologian eta gizonek giza arloan, hezkuntzan edo osasunean duten ordezkaritza txikia gainditi ahal izan dadin. Helburu hori eta baterako hezkuntzari lotutako beste helburu batzuk lortzeko, hezkuntza-maila guztietan irakasgai eta/edo eduki espezifikokoak ezartzea eta ikastetxe guztietan baterako hezkuntzaz arduratutako irakasleen izendapena, ordutegi-prestasuna eta prestakuntza egokia bermatzea planteatuko du legeak, baita berdintasunaren gaia landuko duten batzordeen sorkuntza bermatzea ere, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzearekin. Halaber, ikastetxeen ordezkaritza-organo gorenetan prestakuntza egokia izango duten berdintasuneko ordezkariek egotea planteatuko du.

**Ordaindu gabeko lanaren eremuan**, besteak beste zainketen inguruko erantzunkidetasuna sustatzeko, bizitza pertsonalaren, familia-bizitzaren eta lan-bizitzaren kontziliazioa sustatzera zuzendutako arau eta jardunetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko neurriak jaso daitezten planteatuko du legeak. Bereziki, bi gurasoentzat berdina eta besterenezina den guraso-baimena sektore publiko osoko langileengan zabaltzea eta baimen horiek sektore pribatuan aplikatzeko aukera sustatzea planteatzen da.

**Enpleguaren edo ordaindutako lanaren eremuan**, alde batetik, emakumeak ordezkatuta ez dauden lanpostu eta mailetan (zuzendaritza-postuetan eta

kalitate handiko eta ongi ordaindutako enpleguak eskaintzen dituzten sektoreetan bereziki) sartzeko eta horietara igotzeko neurriak planteatuko dira.

Bestalde, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtza sendotzea hartzen da kontuan, ordainsari-diskriminazioaren aurkako planak eta kanpainak areagotu ditzan. Era berean, erakunde publikoei, enpresei, sindikatuei eta herritar guztiei ordainsari-diskriminazioari aurre egiteko eta balio bereko lanagatik ordainsari berdina jasotzeko printzipioa bermatzeko baliabideak eskaintzea planteatzen da (bereziki, lanpostuen balorazio, sailkapen eta ebaluazio ez-sexista baterako eta lanbide-sustapen ez-sexista baterako jarraibideak, irizpideak eta metodologiak, informazioa eta aholkularitza emateko eta kexak edo salaketak bideratzeko zerbitzu bat eta kontrol-sistemak, ordainsari-auditoriak barne).

## **2.– Ordainsari-berdintasuna ikuskatzeko plan espezifikoa.**

Ikuskatzailtzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko indarreko legeen kontrakoak diren eta soldata-arrakala sortzen duten ekintzei aurre egiteko egiten duen lana sendotze aldera, Lan eta Justizia Sailak ordainsari-berdintasuna ikuskatzeko Plan Espezifikoa bat jarri du abian. Plan horrek soldata-arrakala sortzen duten bi arrazoi nagusi hartzen ditu eraginpean zuzenean: soldata-diskriminazioa eta lan-iruzurra. Plan horretan ezartzen denez, ikuskapen-unitate espezifikoak sortu behar dira hiru lurralde historikoetan, eta soldata-arrakalari lotutako alderdietan prestatu behar dira unitate horiek. Ikuskapen-unitateen kopuru handiagoari eta haien prestakuntza espezifikuari esker (*2019ko martxoan hasi beharrekoa*), ikuskapen-jarduera integral bat egin ahal izango da arlo horretan, eta lanaldiaren eta lan-denboraren kontrola eta aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratazioan gertatzen den iruzurraren kontrola landu ahal izango dira, besteak beste.

Bestalde, ikuskatu beharreko enpresak Laneko Ikuskatzailtzak sistemari egindako iruzurraren patroiak aurreikusteko zehaztutako programen bidez hautatuko dira, eta soldata-auditoriak egingo dira.

Era berean, ordainsari-berdintasuna ikuskatzeko Plan Espezifikoaren barruan, berdintasun-planak (*enpresen berdintasun-planak berrikusiko dira, eta 2019an berrikusiko dira guztiak*), sexu-jazarpena, enplegua lortzeko sexu-diskriminazioa eta familia-bizitza eta lan-bizitza kontzientziatzeko eskubideak ikuskatzeko kanpainak areagotuko dira.

## **3.- Elkarrizketa Sozialerako Mahaian lantalde espezifikoa bat abian jartzea, lan-harremanen eremuan emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerantz aurrera egiteko.**

Joan den otsailaren 11n, lan-harremanen eremuan emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerantz aurrera egiteaz arduratutako Lantaldea eratu zen Elkarrizketa Sozialerako Mahaia barruan, sindikatuekin eta enpresa-erakundeekin batera kontziliario erantzunkidea sustatzera, enpresetan berdintasun-planak bultzatu eta ezartzera, jenero-berdintasuna tratatzera eta

negoiazio kolektiboan ordainsari-berdintasuna sustatzera bideratutako neurriak hartzeko.

Gainera, “balio berdineko lan” kontzeptua zehaztuko duen azterlan bat egitea aurreikusten da, “balio berdineko lanagatiko ordainsari berdinarene” printzipioa eraginkortasunez aplikatzen dela bermatzeko.

**4.- “Kontratu publikoetan, dirulaguntza publikoetan, hitzarmenetan eta itun sozialetan jenero-ikuspegia txertatzeko gida” eguneratzea, eta kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak eta soldata-arrakalaren aurkako neurriak txertatzeko instrukzio espezifiko bat onartzea.**

*“Kontratu publikoetan, dirulaguntza publikoetan, hitzarmenetan eta itun sozialetan jenero-ikuspegia txertatzeko gida” lantzeko fasean dago gaur egun, eta lan-baldintzei dagokienez emakumeen eta gizonen berdintasuna erraztuko duten eta emakumeen eta gizonen soldata-berdintasuna bultzatuko duten klausula sozialen ereduen deskribapen eta analisi juridiko bat biltzen du, besteak beste, aplikazioaren adibide zehatzekin, agiriak idazteaz eta kontratu publikoak jenero-arloan behar bezala gauzatzen direla egiaztatzeaz arduratutako pertsonen lana ahal den heinean errazteko.*

Gida hori osatzeko, kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak eta soldata-arrakalari aurre egiteko neurriak txertatzeko instrukzio espezifiko bat onartuko da (*2019ko martxoan*), eta Administrazio Orokorreko, Administrazio Instituzionaleko eta sektore publikoko gainerako entitateetako kontratazio-organoei zuzenduta egongo da.

**5.- 1,2 milioi euro gehigarriren gaikuntza, hainbat partidatan, soldata-arrakala murriztera bideratutako jardunak sendotzeko.**

Ogasun eta Ekonomia Sailak 1,2 milioi euro gehigarri gaituko ditu, 2019. urtean *Euskadin Soldata Arrakala murrizteko Ekintza Plan Eragilea* indartzeko. Zenbateko hori hainbat partidatan banatuko da, Eusko Jaurlaritzak soldata-arrakala murrizteko hartu duen konpromiso orokorraren barruan Lehendakaritza (Emakunde), Lan eta Justizia Saila, Hezkuntza Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila eta Ogasun eta Ekonomia Saila bultzatzen ari diren neurriak sendotzeko.

Gobernu Kontseiluak joan den azaroaren 27an onartutako *Soldata Arrakala murrizteko Estrategiak eta Ekintza Plan Eragileak* 283 milioi euroko aurrekontu orokorra du, eta 60 neurri garatzera bideratuko da.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### EUSKO JAURLARITZAK UKO EGIN DIO ELKARREKIN-PODEMOSEK 2018KO AURREKONTUEN LEGEA ALDATZEKO AURKEZTU DITUEN BI LEGE PROPOSAMENAK IZAPIDETZEARI

- Bi legegintzako ekimen horien gaineratik daude pasa den ostegunean aurrekontu-luzapena arintzeko onartu ziren premiazko neurrien legeak
- Gainera, Gobernuak Elkarrekin-Podemos taldea ohartarazi du bere ekimenek ez dutela Ganberaren Araubidea betetzen; izan ere, kredituak areagotzen dituzte eta ez dute adierazten gastu hori zer partidaren kargura izango den
- Eusko Jaurlaritzak Elkarrekin-Podemosi gogorarazi dio Gobernuak ogasun-aurrekontu edukien inguruan legeak emateko eskudun bakarra dela

Gobernu Kontseiluak, gaur, asteartean, Elkarrekin-Podemos Legebiltzarreko taldearen bi lege-proposamen izapidetzearen aurkako irizpidea eman du:

- “Abenduaren 22ko 5/2017 Legea (2018 ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onesten dituen Legea) aldatzeko lege-proposamena”
- “Abenduaren 22ko 5/2017 Legearen (2018 ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onesten dituen Legea) 19. artikulua aldatzeko lege-proposamena”

Bi ekimen horien bidez, abenduaren 22ko 5/2017 Legearen (2018 ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onesten dituen Legea) 19. artikulua aldatu nahi da eta seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarriak ezabatu. Alegia, langile publikoen soldataren eta diru-sarrerak bermatzeko errentan aurreikusitako prestazioen zenbatekoaren inguruko manuak.

Eusko Jaurlaritzak bi ekimen horiek izapidetzearen aurka ageri da; izan ere, bere ustez, horien gaineratik dago pasa den ostegunean aurrekontu-laguntzaren inguruko hiru legeetako bi onartu izana: otsailaren 14ko 1/2019 Legea (Diru-sarrerak bermatzeko errentaren inguruan 2019 ekitaldirako premiazko aurrekontu-neurriei buruzkoak) eta otsailaren 14ko 2/2019 Legea (Ordainsarien eta luzapenari buruzko beste alderdi batzuen inguruan 2019 ekitaldirako premiazko aurrekontu-neurriei buruzkoak). Eusko Jaurlaritzaren iritziz, ez du zentzurik helburu berarekin legeak onetsi ondoren helburua galdu duten legegintzako ekimenak izapidetzea.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak Elkarrekin-Podemosi gogorarazi dio bi legegintza-ekimen horiek aurrekontu-kredituak areagotzea dakartela, baina Eusko Legebiltzarren Araubidean bertan ezarritako eskakizunak betetzen ez dituela (148.2 artikulua); izan ere, ez du adierazten indarrean dagoen

aurrekontuaren zer partidaren kargura ordainduko diren proposamenak eragingo dituen gastuak.

## **ESKUMENIK EZA**

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak esan du ez dagoela Elkarrekin-Podemos taldeak aurkeztu dituen bi lege-proposamenak izapidetzearen alde, Autonomia Estatutuaren arabera (25. eta 44. artikulua), Gobernua delako ogasun-aurrekontu edukia duten arauak izapidetzeko legezketasun eskusiboa duen bakarra.



## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

**GOBERNUAK UKO EGIN DIO ELKARREKIN-PODEMOSEK USTEZKO DELITU EDO ARAU HAUSTEAK SALATZEN DITUZTEN PERTSONAK BABESTEKO AURKEZTU DUEN EKIMENARI, ERREDUNDANTEA DELAKO**

- Eusko Jaurlaritzak ohartarazi du dagoeneko Eusko Legebiltzarrean ari direla bi lege izapidetzen eta, horietan, Elkarrekin-Podemosen ustelkeriaren aurkako proposamen guztiak sar litezkeela
- Gainera, Eusko Jaurlaritzak ohartarazi du “*Euskadiko Herritarren Alerten Bulegoa*”ren proposamena gainjarri egiten zaiola dagoeneko Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari den “*Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako Bulegoa*”ri

Gobernu Kontseiluak, gaur, “*Legezko arau-hausteen, eskubide-abusuen eta Euskadin ondasun erkidearen aurkako jardunbide desegokien berri ematen duten pertsonak babesteko lege-proposamena*” izapidetzearen aurkako irizpidea eman du. Lege-proposamena Elkarrekin-Podemos Legebiltzarreko taldeak aurkeztu du.

Eusko Jaurlaritza administrazio publikoaren aurkako ustezko arau-hausteak eta delituak salatzen dituzten pertsonentzako bide seguruak ezartzearen aldekoa da, bai eta zentzu berean informazioa ematen duten pertsonen babesa bermatzearen aldekoa ere. Hala ere, ez du beharrezkotzat jotzen lege berria prestatzea; Eusko Jaurlaritzaren iritziz, gai hori arautzeko tresna juridiko egokiak “*Gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege-proposamena*” edo “*Jardunbide egokien eta ustelkeriaren aurkako bulegoa sortzeko lege-proposamena*” dira. Bi ekimen horiek, dagoeneko, izapidetzen ari dira Euskal Ganberan.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak gogorarazi du panorama erkatuko lege guztiek gai hori sektore publikoaren gardentasunari, erakunde-osotasunari edo ustelkeriaren aurka borrokatzeko ezarri beharreko neurri edo tresnei buruzko araudi orokorraren esparruan arautzen dutela.

### **BIKOIZTASUNA**

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak ohartarazi du erakunde publiko berriak sortzeak, aurretik Euskadin erakunde-osotasuna monitorizatzeko eta ustelkeriaren aurkako borroka antolatzeko dauden erakundeen funtzionamendua eta etekina ebaluatu gabe, nolako arriskua ekar dezakeen. Horrela, bere ustez, zorroztasun osoz aztertu behar da ustelkeriaren aurka borrokatzeko ereduak erredundanteak diren eta bikoiztu eta gainjarri egiten ote diren, bestela koherentziaren eta eraginkortasunaren kalterako izango bailitzateke. Gainera, “*Euskadiko Herritarren Alerten Bulegoa*”ren eginkizunak gainjarri egingo litzaizkieke, nabarmen, dagoeneko Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari den “*Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako Bulegoa*”ren eginkizun batzuei.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### EUSKO JAURLARITZAK EH-BILDURI JAKINARAZI DIO KONTRATU PUBLIKOETAN GIZARTE KLAUSULAK ARAUTZEKO AURKEZTU DUEN EKIMENA LEGEZ KONTRAKOA DELA

- **Gobernu Kontseilua legegintzako ekimena izapidetzearen aurka dago; izan ere, ez da sektore publikoko kontratuen arloan Europako zuzentarauekin eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziarekin bateragarria**

Gobernu Kontseiluak, gaur, asteartean, Euskal Herria Bildu Legebiltzarreko taldeak aurkeztutako *“Kontratu publikoetan gizarte-klausulak arautzeko lege-proposamena”*ren aurkako irizpena eman du.

Eusko Jaurlaritzak *“legezkontrakotasuneko zantzu serioak”* antzeman ditu ekimenarekin, zeina ez baita sektore publikoko kontratuen arloan Europako zuzentarauekin eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziarekin bateragarria. Bestalde, ez da zuzena kontratu-araudian lan-zuzenbideko edo soldata-zuzenbideko klausulak sartzea.

Gainera, EH-BILDUren proposamenak ezartzen dituen xedapenak, Eusko Jaurlaritzaren iritziz, zaharkituta daude edo xedapen horiek Estatuan sektore publikoko kontratuen arloan indarrean dauden legeriak, Eusko Jaurlaritzaren beraren akordioek eta dagoeneko ohiko auzitegiek legez kontrakotzat jo izan dituzten xedapenek gainditzen dituzte.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### EUSKO JAURLARITZAK NEKAZARITZA POLITIKA KOMUNAREN (PAC) 46 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOREN LAGUNTZA ZUZENAK IRAGARRI DITU 2019RAKO

- Oinarrizko ordainketara, ordainketa berdera eta laguntza elkartuetara bideratuak dira partidarik garrantzitsuenak
- Eusko Jaurlaritzak eskualdeen protagonismo handiagoa eskatu du Nekazaritza Politika Komuna (PAC) diseinatzeko orduan, bakoitzaren beharretara egokitu dadin

Eusko Jaurlaritzak Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren Agindua onartu du, zeinaren bitartez 2019ko ekitaldirako Nekazaritza Politika Komunen laguntza zuzenak esleitzeko deialdia egiten den. Laguntzen zenbatekoa 46,26 milioi eurokoa izango da eta Autonomia Erkidegoaren Erakunde Ordaintzailearen bitartez ordainduko dira, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (FEAGA) kontura. Eskaerak Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan aurkeztu ahal izango dira, datorren apirilaren 30era arte.

Eusko Jaurlaritza aspalditik ari da erreklamatzeko Europako agintarien aurrean laguntza horiek ahalik eta gehien egokitu daitezkeen Euskadiko errealitatera eta 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapeneko Planarekin bat etor daitezkeen, zeinak helburu hauek baititu: belaunaldien erreleboa, baserri munduaren modernizazioa, berrikuntza eta lehiakortasunaren ideien garapena, nekazaritza eremuko prestakuntza, nekazaritzako elikagaien industriaren babesa, eta kalitate bereizgarrien balio erantsiaren sustapena. Helburuak dira, halaber, ingurumena eta paisaia naturalaren babesa, oinarrizko zerbitzuak jartzea baserri guneetan, eta lanpostuak sortu eta dibertsifikatzea landa eta itsasertzeko ingurunean.

Horrela, kopuru osoaren banaketa honako hau izango da:

- Oinarrizko ordainketa: 22 milioi euro.
- Ordainketa berdea, klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak diren nekazaritza jardueretarako (Greening): 11,50 milioi euro Ordainketa osagarria, nekazaritza jarduera bati ekiten dioten nekazari gazteentzat: 760.000 euro
- Nekazaritza ustiategi txikietarako erregimen erraztua: 1,90 milioi euro
- Laguntza Elkartuak (nekazariak eta abeltzainak): 10,10 milioi euro

Dekretuan arautzen diren PAC laguntzen diru kopurua ez da gehiegi aldatu azken urteotan, 45 milioi euro ingurukoa baita.

### **Eskaerak egiteko epeak eta baldintzak**

Laguntza hauek eskuratzeko eskaerak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren menpeko Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak aurreikusitako edozein lekutan aurkeztuko dira, datorren otsailaren 1a eta apirilaren 30a arteko epearen barruan. Beharrezkoa izango balitz, eskaerak aurkezteko epea aldatu ahal izango da, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren Erabakiaren bidez, betiere hori egitea Europar Batasunak baimenduko balu eta baimen horretan jarritako muga barruan.

Halere, ezarritako epea amaitu eta ondorengo 25 egun naturaletan aurkeztutako eskabideak ere onartuko dira, baina kasu horietan, kenduta ezinbestezko eta aparteko egoerak, laguntzen zenbatekoak ehuneko bat txikiagoak izango dira atzerapenaren egun baliodun bakoitzeko. Atzerapena 25 egun baino gehiagokoa bada, eskabidea ez da onartuko.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### **EUSKO JAURLARITZAK 1.100.000 EURO BIDERATUKO DITU 2019. URTEAN GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN LAGUNTZETARAKO**

Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ematen dituen genero-indarkeriaren emakume biktimentzako laguntzen deialdia onetsi du. Deialdi honen bitartez 1,1 milioi euro bideratuko dira era honetako laguntzetara 2019. urtean. 2018an, 170 emakumek jaso zuten prestazio hori.

Laguntza-mota hori baliabide ekonomiko nahikoa ez duten eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei bideratuta dago. Laguntza hauen bitartez, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek erasotzailearengandik independizatzeko eta beren egoera egonkortzeko gutxieneko baliabide batzuk eskuratzen dituztelako.

Prestazio hori jaso ahal izateko, emakumeek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Erasotzailearekin edo ustezko erasotzailearekin bikote-harremana behin betiko amaitu izana.
- Genero-indarkeriaren biktimaren izaera egiaztatzen duen agiria izatea (babes-agindua, kondena-epaia edo, salbuespen gisa, Fiskaltzaren txostena); agiriak eskabidea egiten denean indarrean egon behar du eta ezin du indarraldia hasten den egunetik urtebete baino gehiagoko antzinatasuna izan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta bertan bizitzen egotea, gutxienez elkarren segidako 6 hileko antzinatasunarekin.
- Langabezian egotea, lan-kontraturik ez izatea.
- Laguntza hau eta genero-indarkeriaren biktimentzako gizarteratzeko errenta aktiboa jaso ez izana.
- Dagokion foru-ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatea
- Diru-sarreraren kopuru ekonomiko zehatz bat ez gainditzea; kopuru hori indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) % 75en baliokidea da, aparteko bi pagen zati proportzionala aintzat hartu gabe.

Laguntzaren zenbatekoa zehazteko, eskatzailearen desgaitasun-maila, bere kargura dituen pertsonak eta kargura dituen pertsona horiek desgaitasuna ote duten hartuko da kontuan. Laguntza laguntza bera eman eta berehala ordainduko da, ordainketa bakarrean.

	EMAKUMEA BAKARRIK	FAMILIARTEKO EDO ADINGABE 1 KARGURA	FAMILIARTEKO EDO ADINGABE 2 EDO GEHIAGO KARGURA
DESGAITASUNIK GABEKO EMAKUMEA	2.556 €	5.112 €	7.668 €
% 33KO EDO GEHIAGOKO DESGAITASUNA DUEN EMAKUMEA	5.112 €	7.668 €	10.224 €
% 33KO EDO GEHIAGOKO DESGAITASUNA DUEN FAMILIARTEKO EDO ADINGABE 1 KARGURA DUEN EMAKUMEA		7.668 €	10.224 €
% 65EKO EDO GEHIAGOKO DESGAITASUNA DUEN EMAKUMEA EDO % 65EKO EDO GEHIAGOKO DESGAITASUNA DUEN FAMILIARTEKO EDO ADINGABE 1 KARGURA DUEN EMAKUMEA		10.224 €	10.224 €
% 33KO EDO GEHIAGOKO DESGAITASUNA DUEN EMAKUMEA ETA % 33KO EDO GEHIAGOKO DESGAITASUNA DUEN FAMILIARTEKO EDO ADINGABE 1 KARGURA DUENA		10.224 €	10.224 €

*Bide batez, Eusko Jaurlaritzak indarkeriaren biktima diren emakumeentzako informazioa emateko eta telefono bidez arreta emateko zerbitzu espezializatua duela gogorarazten dizuegu, **900 840 111** zenbakiaren bitartez. 51 hizkuntzatan eskaintzen du arreta eta bertara familiartekoek eta hurbileko pertsonak ere jo dezakete, bai eta horiei arreta eskaintzen dieten profesionalek ere (osasun zentroetakoak, zuzenbide eremukoak, komisaldegietakoak, eta abar).*

*Zerbitzuak, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak ez ezik, familia barruko indarkeria-generoaren, sexu-jazarpenaren eta/edo lan-eremuan sexuaren arrazoiagatik erasoaren, sexu-erasoen, derrigortutako prostituzioaren eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima direnak ere artatzen dira, besteak beste.*

## Ogasun eta Ekonomia

### **ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURAREN KONTRATAZIO ZENTRALIZATUA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEENTZAT**

Gobernu Kontseiluak EAEko sektore publikoko entitateentzako energia elektrikoaren horniduraren kontratazio zentralizatuaren adierazpena onartu du gaur, energiari dagokionez efizienteagoa eta jasangarriagoa izango den Euskal Administrazio Publiko bat sustatzeko eta energia elektrikoaren horniduraren kontratazioa era zentzuzkoagoan kudeatzeko.

Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ustez, energia elektriko zentralizatuaren erostea benetan positiboa da. Izan ere, hornidura estandarizatzeko eta eskala-ekonomia handiagoak lortzeko aukera emango du, eta horrek eragina izango du esleipen-prezio hobeak lortzeko garaian.

Euskadiko Energia Estrategia 2030 izenekoaren bidez, energiari dagokionez efizienteagoa eta jasangarriagoa izango den Euskal Administrazio Publiko bat sustatu nahi da, eta, energia-gastuari aurre egiteko aurrezpen-neurrien barruan, kudeaketa eraginkor bat lortu nahi da energia elektrikoaren hornidura kontratatuzko garaian.

Gaur egun, alde esanguratsuak daude Administrazioa tarifa eta aldi beretarako ordaintzen ari den energia-prezioetan. Beraz, zalantzarik gabe, kontratazio zentralizatuaren funtsezko tresna da energia erosteko, euskal administrazioen energia-kontsumoa Euskadiko zerbitzuen sektoreko kontsumoaren % 30 inguru baita.

2018. urtean, Euskal Administrazio Publikoaren energia elektrikoaren fakturaren zenbatekoa 32,5 milioi eurora iritsi zen.

Energia elektrikoaren erosketaren zentralizatuaren egiteko beharrezkoa den prozesuaren zati bat egin da dagoeneko, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Baliabide Orokorren Zuzendaritzak egiten duen energia elektrikoaren erosketari atxikitako entitate sektorialekin eta erakundeekin partekatu eta adostutako kontratazio-ereduaren ikuspegiari jarraitu baitzaio.

2008. urteaz geroztik, Euskal Administrazio Publikoak iturri berriztagarrietatik lortutako energiaren hornidura sartzen du kontratuaren xedean, eta % 20ko proportzioa ezartzen du iturri horiek esleitzeko irizpideetan.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK AKORDIO BAT SINATU DU EUSKO IKASKUNTZAREKIN, ERAKUNDE HONEN FUNTSEN PARTE BAT EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOARI LAGATZEKO**

- **Euskadiko Historia Garaikideko Dokumentazio Zentroan bildutako materiala zein zenbait euskal familiak eta erakundek Eusko Ikaskuntzari dohaintzan emandako dokumentuak biltzen dira lagatzean**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak lagapen-akordio bat onartu du, bere gaurko saioan, Eusko Ikaskuntzaren funtsen zati bat Euskadiko Artxibo Historikoaren esku uzteko. Lagatze honen barruan, alde batetik, azken lau hamarkadotan Euskadiko Historia Garaikideko Dokumentazio Zentroan batutako materiala biltzen da. Horrez gain, zenbait euskal familiak eta erakundek Eusko Ikaskuntzari dohaintzan emandako hogeita hamar bat dokumentu-funts daude lagapen honen baitan.

Erakunde biek iaz iragarri zuten ekimen hau, Euskadiko Artxibo Historikoan egindako agerpen publiko batean; gaur onartutako akordioaren bidez lagapena gauzatzen da. Guztira, 2.000 kutxa ingurutan biltzen da lagatuko funtsa, eta gehiena jadanik Funtsen erabilera Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentro-Irargik kudeatuko du Artxiboan bertan.

#### **Dokumentazio-zentroa**

Eusko Ikaskuntzak Dokumentazio Zentroan bildutako materialak honako elementu hauek ditu:

- Kalitate handiko liburutegi espezializatua; 8.217 liburu eta aldian behingo 2.367 argitalpen-zenbaki ditu.
- 1936aren eta 1980aren bitarteko dokumentazioaren bilketa, 175 kutxatan gordeta, batik bat Donostia-San Sebastiango Casa Baroja inprimategikoak eta La Voz de España egunkarikoak.
- Kartelen bilduma bat.
- Hemeroteka bat, 400 kutxa ingururekin.

Dokumentu-ondare hori azken lau hamarkadatan bildu da, Eusko Ikaskuntzak Gaur Egungo Historiaren Dokumentazio Zentroaren proiektua sustatu zuenetik. Proiektua 1979an sortu zen, Gerra Zibiletik euskal historiari buruzko hainbat arlotako materialak bilduko zituen Zentroa sortzeko beharra planteatu zenean. Honen helburua zen garaiko ikertzaileen eta etorkizunean Trantsizioaren historiari buruz idazteko interesa erakutsiko zutenen esku jartzea interesekotzat jotzen zen dokumentu-ondare guztia. Proiektu hau, hasiera batean, Hondarribiko Ramery Jauregian kokatu zen eta, urteetan zehar, Euskadiko oraintsuko historiari buruzko material ugari bildu zuen: liburuak, egunkariak, aldizkariak, liburuxkak, panfletoak edota kartelak.



### **Gainerako funtsak**

Dokumentazio Zentroaren materialaz gain, zenbait euskal familiak eta erakundek Eusko Ikaskuntzari dohaintzan emandako dokumentuak ere biltzen dira gaur onartutako lagatzean. Elementu horien artean nabarmentzekoak dira honako hauek:

- Aramendi bilduma (39 kutxa), AHNan eta Artxibo Historiko Militarrean eskuratutako dokumentuekin.
- Arteaga – Aznar funtsa (6 kutxa).
- Corral funtsa (5 kutxa).
- Santiago Cunchillos funtsa (4 kutxa).
- Hauteskundeei buruzko dokumentazioa (32 kutxa).
- Eva Forest – Alfonso Sastre funtsa (15 kutxa).
- Eugène Goyenèche funtsa (9 kutxa).
- KAS koordinatzailearen dokumentazioa (3 kutxa).
- Langileen erakunde iraultzailearen dokumentazioa (89 kutxa).
- Alderdi politikoei buruzko dokumentazioa (270 kutxa).

Hortaz, badaude era askotako funtsak, familia ugarirenak, alderdi politikoenak, sindikatuenak, gizarte-mugimenduenak eta bestelako artxiboetan eskuratutako dokumentuak. Azpimarratzekoa da Santiago Cunchillos, Eugène Goyheneche, Arteaga-Aznar edo Sastre-Foresten funtsen garrantzia.

Eusko Ikaskuntzak Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren mendeko Euskadiko Artxibo Historikoari lagatako funtsak balio handiko ondare dira, ikuspuntu historikotik eta kulturaletik. Artxibo Historikoak baldintza egokiak ditu material hori babestu, kontserbatu eta, hala badagokio, zabaldu ahal izateko.

Eusko Ikaskuntzak, era berean, funts horiek ahalik eta baldintza egokienetan kontserbatu eta zabaldu ahal izateko interes bera du. Hori dela-eta, alde biek erabaki dute dokumentu horiek lagatzeko akordioa sinatzea; bertan ezartzen da Eusko Ikaskuntzak doan laga diola funts horiek gordetzea.

Hitzarmen hau dokumentu-ondarearen eta artxiboen politikaren programetako baten oinarri da, Euskadiko historia ulertzeko esanguratsuak diren dokumentu-funtsak berreskuratzeko programarena. Artxiboak kontserbatu eta zabaldu egingo ditu, dituen artxibo-funts publikoen irizpide berei jarraikiz.

## Presidencia

### DECLARACIÓN INSTITUCIONAL - 22 DE FEBRERO 2019

#### *Día Europeo por la Igualdad Salarial de Mujeres y Hombres*

Con motivo de la celebración el próximo viernes, 22 de febrero, del ***Día Europeo por la Igualdad Salarial de Mujeres y Hombres***, el Gobierno Vasco quiere ratificar su compromiso con la igualdad efectiva de mujeres y hombres en el entorno laboral y su apuesta por dar una respuesta integral al problema de la desigualdad salarial.

La brecha salarial es la manifestación, en términos retributivos, de un problema de desigualdad estructural entre hombres y mujeres y refleja la discriminación y desigualdades que afectan a las mujeres en el mercado laboral y a lo largo de su vida. La brecha reproduce y perpetúa la desigualdad de mujeres y hombres en nuestra sociedad y son múltiples los factores que la producen, entre ellos, la segregación laboral por sexo y la inferior valoración social y económica del trabajo realizado por las mujeres; las distintas posiciones de mujeres y hombres en el mercado laboral, marcadas por las relaciones de género y estereotipos; o la falta de corresponsabilidad en las labores de cuidado, entre otros.

Algunas de las consecuencias de la desigualdad salarial son una menor autonomía económica para las mujeres, mayores índices de pobreza y una incidencia directa en las cotizaciones a la seguridad social y, en consecuencia, en las pensiones.

Es responsabilidad de las administraciones contribuir a la eliminación de la brecha salarial, siendo conscientes de que se trata de un problema complejo cuyo abordaje ha de ser multidimensional y ha de venir de la mano de todos los agentes implicados.

El compromiso del Gobierno con la reducción de la brecha salarial se plasma en el Programa de Gobierno para la XI Legislatura, en la Estrategia 2030 y, especialmente, en la *Estrategia y Plan Operativo de Acción para reducir la Brecha Salarial en Euskadi*, aprobados por el Consejo de Gobierno de 27 de noviembre pasado, y cuya meta es que Euskadi se sitúe, para el año 2030, entre los cinco países europeos con menor desigualdad salarial.

Desde el Gobierno trabajamos de manera coordinada en torno a este Plan, porque consideramos que avanzar hacia la igualdad salarial de mujeres y hombres, además de ser un asunto de justicia, supone un beneficio para toda la sociedad, una vez que contribuye al crecimiento económico, al aumento de la productividad y a la conciliación corresponsable de la vida familiar, personal y laboral.

Se trata de un objetivo prioritario, que requiere de un trabajo coordinado entre las distintas áreas de actuación, orientado a garantizar en Euskadi la igualdad salarial entre mujeres y hombres. Este es nuestro objetivo y esta es nuestra labor.

